

DESKONTRAKTATU NAZAZUE

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ELSA: Hau da, hik bizkarrean kontraktura bat dunala esaten dion, eta bera bizkarrean masajea ematen hasten dun, baina hamar minutura hatzak alde batetik bestera joan eta, azkenean, bularra hasten dunan leku honetan masajea ematen hasten dun, geroago, ezpainak hire garondora hurbiltzen ditin, eta beroa emateko egiten dinala esaten din. Zein ederra haizen behin eta berriro errepikatzen dinala eta etxera joatea proposatzen dinala, han dinan ohatila berezi batean masaje bat egiteko... Neska, nik uste ez zagonala zalantzarik. Eta, begira, zerbait esango dinat: duela denbora bat, hi honekin hator eta esango ninake: "Baina zer habil no, zoratu egin haiz, ezkonduta hago eta bera ere!" Orain, berriz, hau zionat: "A-u-rre-ra!". Ez pentsa Jorgerekin ez nagonala ondo. Zoriontsua naun: Jorgek asko maite naun, nere bi seme-alabak gurtzen ditinat eta dena zoragarria dun. Baina batzuetan pixka bat estresatuta noan: haurrak, lana, ingelesa, gimnasioa, etxea, hurren saskibaloia, gurasoak, aita-amaginarrebak... Asko gustatzen zaidan nire bizitza, oso zoriontsua naun, baina stres pixka bat izaten hasi naun eta loan eragiten ari zaidanala uste dinat. Batzuetan zorabioak izaten ditinat, uste dinat "muskuluak" zurruntzen zaizkidanala, bizkarreko kontraktura antzeko bat egiten zaizkidananak. Deskontrakturaketa bat izan beharko dinat...

Ele txera
munduarek zabalduz



OHARRAK: *ELSA*, bakarrizketa honetako protagonista, oso emakume tradizionala da. Lagun baten desleialtasuna gaitzesten duen pertsona-mota da. Baina zerbait aldatu da. Oraingo honetan, bere lagunak esan dio – kontu handiz - bere fisioterapeutaren intsinuazioei ematen ari dela, eta **ELSA**k ez dio aurpegiratu, baizik eta esperimantatzera animatu du.

Zergatik? Izan ere, zerbait gertatzen ari da **ELSA**ren ezkonbizitzan - eta haren bizitzan -, desleialtasuna desiragarria dela ikusarazi baitio. Denbora luzez iragarri duenaren kontra, **ELSA**ren ezkonbizitza ez da zoragarria. Izan ere, denbora bat darama maldan behera, errutinak eta arretarik ezak trabatuta. Eta garrasika aitortu nahi dio lagunari. Baina ezin du, beti izan baita ezkonbizitzaren eta leialtasunaren defendatzaile sutua. Baina hitz-erdika egiten bukatzen du. Edo ez hain hitz-erdika.

DESKONTRAKTATU NAZAZUE

Marc Egea

Eusk: Ele txera

*Monologoak tonu lasaia du, komikoa ere bai. **ELSA** berari egoera desdramatizatzea interesatzen zaio, hutsaltzea.*

Ele txera
Munduko zabaldua

